



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

PRENTSARAKO OHARRA

## **Teresa Laespadak bere gain hartu dau Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun sail barria, inor "atzean, baztertuta edo kanporatuta" geratu ez daiten konpromisoagaz**

"Inor ez daitela atzean, baztertuta edo kanporatuta geratu". Hori da gaur Batzar Nagusien aurrean, berak eskatuta, bere Sailak Agintaldi honetarako dituan ildo estrategikoak aurkeztu dituan Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatu Teresa Laespada Martínez andrearen helburu nagusia. Batzordean egin dauen agerraldian Foru Diputatu barriak, "garatuz doazan politiken etenbako azterketarako eta ebaluazinarako mekanismoak" apliketako asmo garbia adierazo dau.

Bere agerraldiaren hasieran, Laespadak genero indarkeriaren biktima diran emakumeak eta aste honetan Somalian izandako trafiko istripuan hil dan Nerea Pérez Arrospide kooperante bizkaitarra gogoratu ditu. Alkartasunezko berbak zuzendu deutsez errefuxiatu siriarreri eta "gatazkan dagozan beste leku batzuetako milioika pertsoneri". Arlo horretan, adierazo dauenez, Aldunditik "lankidetzan eta beharrean ari gara giza krisialdi horreei erantzuna emoteko", eta denpora gitxi barru Batzordearen aurrera etorriko dala barrero iragarri dau "aurrera eroaten ari diran ekintzen barri zehatza emoteko".

Sailaren osaketari jagokonez, hiru zuzendaritzek (Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna eta Lankidetzeta) "desbardintasunari aurre egiteko politiken ikuspegi zeharkakoa eta osagarria osotzen dabe, eta horretarako beharrezkoa da krisi ekonomikoaren ondorioz egoera larrienean dagozan pertsoneri arreta integrala eskintzea".

Lanbideren azkenengo zifrek erakusten dabenez Bizkaiaren, Ezkerraldean, Bilbon eta Enkarterrin, batez be, 87.334 langabetu dagozala gogoratu eta gero, Laespadak egoera horri, gazteen langabeziari eta iraupen luzekoari eta gizartetik baztertuta geratzeko arriskua daben pertsoneri jagokenari, batez be, aurre egiteko eta datu horreek murrizteko hainbat jarduketa iragarri ditu. Diputatu andreak auto-enpleguaren aldeko apustua azpimarratu dau, kalidadeko enplegurako bideak behar dauen jarraipena eta laguntza ziklo osoa jasoten daben foru dekretuen bitartez, Behargintza izenekoak moduko tokiko eragileen laguntzagaz. Beste leku batzuetan arrakastaz gauzatu diran "Enplegu lantzaderak" izeneko programa barria be iragarri dau. Programa horretan talde lana egiten da coach batekin, lan munduan sartzeko helburuz, norberaren kontura edo beste batzuen kontura.

Gizarte Zerbitzuen arloan, Laespadak bere ardurea erakutsi dau etxebizitzatik kanpoko egoera larrian dagozan pertsonak dirala eta, eta horren aurrean gainerako herri administrazioak lankidetzan aurrera eroan beharreko erantzuneko estrategia proponidu dau. Intsertzinoaren arloan, gizarte politiken helburua gizarte eta lan arloko intsertzinoa izango dala zehaztu dau. Ganera, batez be egoera txarrean dagozan familiei zuzenduta egongo diran gizarte barrikuntza programak be iragarri ditu.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Gizonen eta emakumeen arteko bardintasunari jagokonez, diputatu andreak ko-hezkuntza, prebentzino, maskulinitate barri, mikromatxismoen bazterketa, enpoderamendu eta eraso matxisten biktimei emon beharreko arreta politikak planteau ditu. Holan, denpora gitxi barru indarrean jarriko dan eta “gai hori agenda politikoaren lehenengo lekuan jarriko dauen eta gizonen eta emakumeen arteko aukera bardintasuna zeharkakotasunetik, alkarren arteko erantzukizunetik eta kontziliazinetik, enpoderamendu eta balio aldaketatik eta genero indarkeria guztiz baztertzetik landuko dauen” Bardintasunerako Foru Arau Proiektua iragarri dau.

Garapenerako Laguntzari jagokonez, Teresa Laespadak azaldu dauenez, “beharrezkoa izango da 2016an Plan Zuzendaria barriztetea eta tokiko erakunde publikoen arteko lankidetzak teknikoaren aldeko apustua egingo dauen Foru Dekretu barria onartzea, etorkizunean Aldundiaren aurrekontuaren %0,7ra heltzeko konpromisoa ahaztu barik”.

Laespadak ekonomia solidarioaren aldeko apustua be azpimarratu dau, “Foru Aldundiak, merkataritza zuzenaren, ekonomia solidarioaren edo banka etikoaren arloetan erakunde eredugarria izan behar dauela uste izatean oinarritua”.

#### ESKUA LUZATUTA OPOSIZINOTIK

Batzarretako talde guztiek eskua luzatu deusie Foru Diputatu barriari, Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasun batzordearen aurrean egin dauen esku-hartzea entzun ostean, baina zalantzaren bat be planteau jako eta informazino gehiago eskatu jako.

Eduardo Andrés Bizkaiko Talde Popularraren (PP) bozeroaleak urritasuna daukien pertsonen ganeko ardura bideratu deutso Diputatu andreari, lurraldean dagozan zentro okupazionalen funtzionamenduari buruzkoa, zehatzago esanez. Langabezia dagozan pertsonen zuzendutako prestakuntza plan indibidualizatuari buruz be galdetu deutso, bere eretxian “ez dabelako emaitzarik emoten”.

Asun Merinero Bizkaiko Ahal Dugu taldeko ordezkariaren eretxiz, Sailaren eta Sailak aurrera eroaten dituan politiken arrakastea “aurrekontuen arabera izango da”, eta hori dala eta, eskaerea egin deutso Diputatu andre barriari, “aurrean daukan eginbehar handiari aurre egin ahal izateko eta eginbehar guztiak beste ahal izateko, ahalik eta diru gehien lortzeko egin beharreko guztia egin daian, eginbehar asko ditualako”.

Alexia Castelo Socialistas Vascos taldeko bozeroaleak, bere aldetik, “pertsonentzat pentsautako zeharkako politiken aldeko apustuan sakontzeko” beharra azpimarratu dau eta, hori dala eta, erakundeen arteko lankidetzak handiagoa eskatu dau.

EH Bilduko Batzarretako taldeak be “laguntzeko eta ekarpenak egiteko” asmoa adierazo dau, “modu positiboan beti be”, David Lopategi ordezkariak esan dauenez. Dana dala, “zehaztasun handiagoa” eskatu deutso diputatu andreari. Ganera, bere zalantzak agertu ditu, “Gizarte Ekintza eta Ekonomiaren Sustapena moduko Aldundiko beste sail batzuek izan beharreko koordinazioaren inguruan”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Bukatzeko Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) taldeko Ana Esther Furundarena ordezkariak be bere laguntzea agertu deitso Diputatu andre barriari etapa barri honetan, enplegu politiketan batez be, bere eretxiz “horreek diralako pobrezia eta gizarte bazterketa egoerei aurre egiteko tresna hoberenak”.

**IRENE EDESA, BATZORDEKO IDAZKARIA**

Saio berean, EAJ-PNV-ko Irene Edesa Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun batzordeko idazkari aukeratu dabe, bere alderdiaren eta PSE-EE-ren aldeko botoakaz. Bizkaiko Ahal Dugu taldeko eta PP-ko ordezkariak boto zuria emon dabe, eta EH Bilduko hiru ordezkariak ez dabe parte hartu bozketan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **Teresa Laespada asume el nuevo Departamento Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad con el compromiso de que ninguna persona quede "atrás, relegada o excluida"**

Bilbao, a 17 de septiembre de 2015

"Que ninguna persona quede atrás, relegada o excluida" es el gran objetivo de Teresa Laespada, Diputada de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia, que hoy ha presentado a petición propia en Juntas Generales las líneas estratégicas de su Departamento para la presente legislatura. En su comparecencia en Comisión, la nueva Diputada foral ha subrayado su firme intención de aplicar "mecanismos de examen y evaluación constante de las políticas que se vayan desarrollando".

Laespada ha iniciado su intervención recordando a las mujeres víctimas de violencia de género y a la cooperante vizcaína Nerea Pérez Arrospide, fallecida esta semana en accidente de tráfico en Somalia. También ha tenido palabras de solidaridad con los refugiados sirios y "con millones de personas en lugares de conflicto". En este sentido, ha informado que desde la Diputación "se está colaborando y trabajando para dar respuesta a estas crisis humanitarias" y que, en breve plazo, comparecerá ante la Comisión "para dar cuenta pormenorizada de las acciones".

Respecto de la composición del Departamento, ha indicado que las tres direcciones de las que consta (Empleo, Inclusión Social e Igualdad y Cooperación) "componen una visión transversal y complementaria de las políticas de combate de la desigualdad, que exige atención integral de las personas más desfavorecidas por la crisis económica".

Tras recordar que, según las últimas cifras de Lanbide, hay un total de 87.334 personas en situación de desempleo en Bizkaia, fundamentalmente en Margen Izquierda, Bilbao y Enkarterri, Laespada ha anunciado diversas actuaciones para hacer frente a esta situación y rebajar los datos, sobre todo de desempleo juvenil y de larga duración y el que afecta a las personas en riesgo de exclusión social. La Diputada ha destacado su apuesta por el autoempleo, desde decretos forales con programas de ciclo completo en el seguimiento y apoyo de este tránsito hacia el empleo de calidad, en colaboración con agentes locales como los Behargintza. También ha anunciado un nuevo programa de "Lanzaderas de empleo", llevado a cabo con éxito en otros lugares y que consiste en el trabajo grupal a través de un coach con el objetivo de la inserción laboral, bien por cuenta ajena o propia.

En el ámbito de los Servicios Sociales, Laespada ha mostrado su preocupación por las personas en situación de exclusión residencial grave, ante la que ha propuesto una estrategia de respuesta en colaboración con el resto de administraciones públicas. En el terreno de la inclusión, ha precisado



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

que las políticas sociales tendrán como objetivo la inserción sociolaboral. Además, ha anunciado programas de innovación social, especialmente dirigidos a las familias más desfavorecidas.

Sobre la igualdad entre hombres y mujeres, la Diputada ha planteado políticas de coeducación, prevención, nueva masculinidad, erradicación de micromachismos, empoderamiento y atención a las víctimas de agresiones machistas. En concreto, ha anunciado un próximo Proyecto de Norma Foral de Igualdad "que coloque este asunto en el primer lugar de la agenda política y que aborde la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres desde la transversalidad, la corresponsabilidad y conciliación, el empoderamiento y cambio de valores y la erradicación de la violencia de género".

Sobre Cooperación al Desarrollo, Teresa Laespada ha explicado que "será necesario renovar el Plan Director en 2016 y un nuevo Decreto Foral que apueste por la cooperación técnica entre entidades públicas locales, sin olvidar el compromiso para llegar en el futuro a un 0,7% del presupuesto foral".

Laespada ha subrayado también su apuesta por la economía solidaria, "desde el convencimiento de que la Diputación debe ser una institución ejemplarizante en lo referido al comercio justo, economía solidaria o banca ética".

#### MANO TENDIDA DE LA OPOSICIÓN

Todos los grupos junteros han tendido su mano a la nueva Diputada Foral tras escuchar su intervención en la Comisión de Empleo, Inserción Social e Igualdad, aunque también le han planteado dudas y solicitado más información.

El portavoz del grupo Popular Vizcaíno (PP) Eduardo Andrés ha trasladado a la Diputada su preocupación por la situación de las personas con discapacidad y, concretamente, sobre el funcionamiento de los centros ocupacionales del territorio. También le ha preguntado sobre los planes de formación individualizados para personas en situación de desempleo, que, en su opinión, "no están dando resultados".

Para la representante del grupo de Podemos Bizkaia, Asun Merinero, el éxito del Departamento y de sus políticas "va a depender de los presupuestos", por lo que ha solicitado a la nueva Diputada que "haga todo lo posible por conseguir la mayor dotación posible para hacer frente a la ingente labor que tiene por delante y cubrir todas las necesidades, que son muchas".

Por su parte, la portavoz del grupo Socialistas Vascos, Alexia Castelo, ha incidido en la necesidad de "profundizar en la apuesta por las políticas transversales pensadas para las personas", por lo que ha solicitado una mayor colaboración interinstitucional.

El grupo juntero de EH Bildu ha mostrado también su disposición "a ayudar y a aportar, siempre en positivo", según su representante David Lopategi quien, sin embargo, ha solicitado a la Diputada "una mayor concreción". Además, ha mostrado sus dudas sobre "la coordinación con otras áreas y departamentos forales como Acción Social y Promoción Económica".



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Finalmente, la representante del grupo Nacionalistas Vascos (EAJ-PNV), Ana Esther Furundarena, ha dado también su apoyo a la nueva Diputada en esta nueva etapa, sobre todo en las políticas de empleo que, en su opinión, "son la principal herramienta para combatir las situaciones de pobreza y exclusión social".

**IRENE EDESA, SECRETARIA DE LA COMISIÓN**

En la misma sesión, Irene Edesa, de EAJ-PNV, ha resultado elegida secretaria de la Comisión de Empleo, Inserción Social e Igualdad, con los votos a favor de su partido y del PSE-EE. Los representantes de Podemos Bizkaia y PP han votado en blanco mientras que los tres de EH Bildu no han tomado parte en la votación.